



HAURTZARO IKASTOLA KOOPERATIBAREN

ESTATUTUAK

2014-12-12
BATZAR NAGUSIA

I. ATALA. IZENA, HELBURUA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA

1. ARTIKULUA. IZENA

“HAURTZARO IKASTOLA, KOOP.ELK.” izenarekin Oiartzunen (20180) hezkuntza-kooperatiba bat sortu zen, lege eta arau hauen oinarri eta xedapenekin bat: Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legea, ekainaren 24koa; lege horren aldaketak, ekainaren 29ko 1/2000 Legearen eta abenduaren 1eko 8/2006 Legearen bidez egindakoak, guztiak Eusko Legebiltzarrak onartutakoak; aplikatzekoak diren gainerako lege-aginduak; eta Estatutu hauek.

2. ARTIKULUA. HELBURUA

BAT.- Elkartearen helburuak hauek dira:

- a) Irakaskuntza arautuari dagozkion zerbitzuak ematea (irakaskuntzako hainbat ziklo eta gradu); halaber, bazkideek eskatzen duten arautu gabeko irakaskuntza-zerbitzua ematea.
- b) Hezkuntza-eskaintzaren helburu nagusia euskal hizkuntza eta kultura sustatzea izango da, eta eleaniztasunean oinarritzen da. Irakaskuntzan oinarritzko hizkuntza euskara izango da; horrez gain, gazteleraren ezagutza osoa bermatuko da, eta beste hizkuntza batzuen ezagutza ere bai.
- c) Hezkuntza-zerbitzuak beharrezko kalitate pedagogikoa ziurtatuko du, eta kalitate hori etengabe hobetzeko prozesuak bultzatuko ditu; hori guztia, ikasleak irakaskuntza-gaietan trebatzearen, eta ikasleei beren nortasunaren garapenean laguntza ematearren; pertsona aske eta arduratsuak izan daitezen, eta haien gizarte-ingurunean guztiz txertatu daitezen.

CAPITULO I. DENOMINACION, OBJETO, DOMICILIO SOCIAL, DURACION Y AMBITO TERRITORIAL

ARTICULO 1. DENOMINACION

Con la denominación de “HAURTZARO IKASTOLA, KOOP. ELK., se constituye en la localidad de Oiartzun (20180) una cooperativa de enseñanza sujeta a los Principios y Disposiciones de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi y de sus modificaciones introducidas por la Ley 1/2000, de 29 de junio y la Ley 8 /2006, de 1 de diciembre, todas ellas aprobadas por el Parlamento Vasco, así como a los demás preceptos legales que le sean de aplicación y a los presentes Estatutos.

ARTICULO 2. OBJETO

UNO.- Constituye el objeto de la sociedad:

- a) La prestación de servicios de enseñanza reglada, en sus diferentes ciclos y grados, así como de la no reglada que sea demandada por los socios.
- b) La oferta educativa estará particularmente orientada al fomento y desarrollo de la cultura y de la lengua vasca y tendrá un carácter plurilingüe, haciendo uso del euskera como lengua vehicular básica, garantizando a los alumnos el pleno conocimiento también del castellano y promoviendo, asimismo, el conocimiento de otras lenguas.
- c) El servicio educativo asegurará la necesaria calidad pedagógica e impulsará procesos de mejora constante de la misma, todo ello con el fin de formar a los alumnos en las materias objeto de enseñanza y de ayudar en el desarrollo de su personalidad y su preparación como personas libres y responsables, plenamente integrados en su entorno social.

d) Eskolako eskaintza pedagogikoaz gain, gizarteak jarduera osagarriak eskaintzen ditu, kirol, kultura edo aisia arlokoak; eta horiek lagungarri izango dira, aurreko ataletan adierazitako helburuak guztiz lortzeko.

e) Elkarte kooperatibo honen helburu izango dira, halaber, ikasleen gurasoei zuzendutako zerbitzuak ematea eta jarduerak sustatzea (guraso-eskolak, hitzaldiak, topaketak...); bereziki bultzatuko dira, gurasoek Ikastolaren bizitza komunitarioan parte hartzea eta haien seme-alaben ikaskuntza- eta heltze-prozesuan ekarpen arduratsua egitea ahalbidetzen duten jarduerak.

Ikastolaren hezkuntza-eskaintza komunitate osoarentzat irekia da. Ikastolak zerbitzu publikoa izateko asmoa du. Era guztietako diskriminazioak saihestuko ditu, bai ekonomikoak eta bai bestelakoak; eta irabazi-asmorik gabekoa da, beraz, debekatuta dago kooperatiba-itzulkinak banatzea.

BI. - Kooperatibak printzipio hauek errespetatuko ditu, duen helburu soziala lortzearren:

- Kooperatiba anitza eta laikoa da.
- Kooperatiba herritik sortu zen, beraz, sorreratik da herritarra, eta herriarekin lotura estua du.
- Kooperatibak hezkuntza-eskaintza zabalaren alde egiten du.
- Kooperatiba Euskal Herriko Ikastolen mugimenduaren sustatzaile eta partaidea da.

d) Además de la oferta pedagógica lectiva, la sociedad ofertará actividades complementarias de carácter deportivo, cultural y de ocio que ayuden a la consecución plena de los objetivos señalados en los anteriores apartados.

e) También serán objeto de esta sociedad cooperativa la prestación de servicios y la promoción de actividades (escuela de padres, conferencias, encuentros, etc.) dirigidas a los padres de los alumnos, particularmente las que favorezcan su participación en la vida comunitaria de la ikastola y su aportación responsable en el proceso de aprendizaje y de maduración personal de sus hijos.

La oferta educativa de la ikastola estará abierta y dirigida a toda la comunidad, con una vocación de servicio público que buscará evitar cualquier discriminación por motivos económicos o de otro tipo y descartará toda idea de lucro por parte de la cooperativa, prohibiéndose el reparto de retornos cooperativos,

DOS.- La Cooperativa para la consecución de su objeto social deberá respetar los siguientes principios:

- La Cooperativa es plural y laica.
- La Cooperativa tiene desde su creación un carácter popular, surgido del pueblo y con una estrecha relación con el pueblo.
- La Cooperativa apuesta por una oferta educativa amplia
- La Cooperativa es impulsora y partícipe del movimiento de Ikastolas de Euskal Herria.

3. ARTIKULUA. EGOITZA SOZIALA

Kooperatibak Oiartzunen du egoitza (20.180 pk), Manuel Lekuona kaleko 16. zenbakian. Kontseilu Errektoreak erabaki dezake egoitza udalerrri bereko beste leku batera lekualdatzea.

4. ARTIKULUA. IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA

BAT. - Elkartea denbora mugagaberako sortu zen.

BI. - Jarduteko lurralde-eremua Oiartzun da, elkarteak bazkideekin egin behar dituen sozietate-eragiketei dagokienez bakarrik; ez kooperatibak egiten duen beste edozein jarduera motari dagokienez.

II. ATALA. BAZKIDEAK

5. ARTIKULUA. BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK

BAT.- Bazkide erabiltzaileak

- a) Kooperatiban seme-alabak edo tutoretzapeko haurrak dauzkaten gurasoak, ordezkariak, edo tutoreak, haien guraso-agintea dutenak.
- b) Adinez nagusiak diren ikasleak, kooperatibak erabakitzen dituen ikasturte eta goeretan.
- c) Adingabeko ikasleen edo ezintasuna duten ikasleen zaintza eta legezko babesaren gain duten erakunde publikoak, eta erabilera publikoko erakunde pribatuak, ongintzazkoak barne; edo erakunde horiek zuzentzen dituzten zentro, egoitza edo establezimenduetan egonik, haien ordezkariak espresuki eman dietenean.

ARTICULO 3. DOMICILIO SOCIAL

El domicilio social se fija en la localidad de Oiartzun (20.180) (Gipuzkoa), en, Manuel Lekuona, 16 y su cambio dentro del mismo término municipal podrá ser acordado por el Consejo Rector.

ARTICULO 4. DURACION Y AMBITO TERRITORIAL

UNO.- La Sociedad se constituye por tiempo ilimitado.

DOS.- El ámbito territorial de actuación se extiende a la localidad de Oiartzun, bien entendido que este ámbito hace referencia exclusivamente a las operaciones societarias cooperativizadas con sus socios y no a cualquier otro tipo de actividad desarrollada por la Cooperativa.

CAPITULO II. DE LOS SOCIOS

ARTICULO 5. PERSONAS QUE PUEDEN SER SOCIOS

UNO.- Socios Usuarios

- a) Los padres, representantes o tutores, que cuenten con hijos, descendientes o tutelados en esta cooperativa, y tengan atribuida su patria potestad.
- b) Los propios alumnos mayores de edad en los cursos y circunstancias que la cooperativa determine.
- c) Las entidades e instituciones públicas y las privadas de utilidad pública, incluidas las benéficas, que ejerzan la guarda y protección legal de escolares menores o incapaces, o cuando representen alumnos adultos que, estando acogidos a centros, residencias o establecimientos regidos por aquéllas, les hayan otorgado expresamente su representación.

d) Adin nagusiko pertsona fisikoak, nahikoa gaitasun juridikoa dutenak, eta kooperatiba honen hezkuntza-zerbitzua jasotzen dutenak.

HIRU.- Lan-bazkideak

Jarduteko gaitasuna eta kooperatiban lanean aritzeko gaitasuna duten pertsonak, eta Estatutu hauek sinatzean bere gain hartzen dituzten eskubideen eta betebeharren jakitun izanik, horiek leialtasunez eta eraginkortasunez betetzeko konpromisoa hartzen dutenak.

Lan-bazkide izateari utziko diote, kooperatiban lanean aritzeari uzten diotenean.

Lan-bazkideak langile mugagabeak dira; hala ere, legeak aurreikusten dituen mugen barruan, iraupen mugatuko gizarte-lotura izan dezakete kooperatibarekin.

LAU. - Bazkide ez aktiboak edo ez erabiltzaileak

Lan-bazkideak edo bazkide erabiltzaileak, 16. artikuluan ezarritako antzintasuna eta baldintza formalak betetzen dituztenak, eta lan-bazkide edo bazkide erabiltzaile izateari utzi ondoren, kooperatiban bazkide ez aktibo edo ez erabiltzaile gisa parte hartu nahi dutenak.

6. ARTIKULUA. BAZKIDEAK ONARTZEKO BALDINTZAK

BAT. - Bazkide edo erabiltzaile gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Hemezortzi urte baino gehiago edo nortasun juridiko nahikoa izatea.

d) Las personas físicas mayores de edad con capacidad jurídica suficiente, que reciban servicios de educación de esta cooperativa

TRES.- Socios de trabajo.

Las personas con capacidad de obrar y de desarrollar su trabajo en la cooperativa y que, conscientes de los derechos y obligaciones asumidas al suscribir estos Estatutos se comprometan a desempeñarlos con lealtad y eficacia.

La pérdida de la condición de socio de trabajo determina como consecuencia el cese de la prestación de trabajo en la cooperativa.

Los socios de trabajo tendrán carácter indefinido aún cuando, y dentro de los límites legales previstos al efecto, podrán tener una vinculación social de duración determinada con la cooperativa.

CUATRO.- Socios inactivos o no usuarios

Los socios de trabajo y los socios usuarios que con la antigüedad y los requisitos formales establecidos en el artículo 16, dejen de ser socios de trabajo o socios usuarios y soliciten su incorporación en la Cooperativa como socios inactivos o no usuarios.

ARTICULO 6. REQUISITOS PARA LA ADMISION

UNO.- Para la admisión de una persona como **socio/a usuario** deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de dieciocho años o tener personalidad jurídica suficiente.

- | | |
|---|---|
| <p>b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpeni buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako ekarpena egitea, Estatutu Sozial hauetan bazkide horietarako ezartzen dena, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dena.</p> <p>c) Onartzea Estatutu Sozial hauetan bazkide horientzat ezartzen den parte-hartze konpromisoa.</p> <p>d) Onartzea eta betetzea kooperatibaren gizarte-organoei hartutako akordioak, kooperatibei buruz indarrean diren legeak, Estatutu Sozial hauek eta Barne Araudia.</p> <p>e) Kooperatiban ikasle bezala edo kooperatibak ematen duen irakaskuntza edo zerbitzuaren hartzaile bezala sar daitezkeen seme-alabak edo tutoretzapeko haurrak izatea.</p> <p>f) Kontseilu Errektoreari onartua izateko eskaera egitea idatziz.</p> <p>BI. - Pertsona bat lan-bazkide mugagabe gjsa onartzeko, baldintza hauek bete behar dira:</p> <p>a) Haren zerbitzua kontratatzeko gaitasuna izatea.</p> <p>b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpeni buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako ekarpena egitea, Estatutu Sozial hauetan bazkide horietarako ezartzen dena, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dena.</p> <p>c) Estatutu hauetan bazkide horientzat ezartzen den parte-hartze konpromisoa onartzea.</p> <p>d) Onartzea eta betetzea kooperatibaren gizarte-organoei hartutako akordioak, kooperatibei buruz indarrean diren legeak, Estatutu Sozial hauek eta Barne Araudia.</p> | <p>b) Aceptar los compromisos sobre aportaciones a capital social, y realizar la aportación obligatoria inicial que se fija para estos socios/as en los presentes Estatutos Sociales o la que haya acordado por la Asamblea General y esté vigente.</p> <p>c) Aceptar el compromiso de participación que se establece para este tipo de socios/as en los presentes Estatutos Sociales.</p> <p>d) Asumir y cumplir los acuerdos adoptados validamente por los órganos sociales de la Cooperativa, y la legislación cooperativa vigente, así como los presentes Estatutos Sociales y el Reglamento de Régimen Interior.</p> <p>e) Tener hijos/as o tutelados/as que puedan incorporarse como alumnos/as en la Cooperativa o ser receptor de la enseñanza o del servicio que presta la Cooperativa.</p> <p>f) Solicitar la admisión, con instancia escrita dirigida al Consejo Rector.</p> <p>DOS.- Para la admisión de una persona como socio/a de trabajo indefinido deberá cumplir los siguientes requisitos:</p> <p>a) Tener capacidad para contratar su prestación de trabajo.</p> <p>b) Aceptar los compromisos sobre aportaciones a capital social, y realizar la aportación obligatoria inicial que se fija para estos socios/as en los presentes Estatutos Sociales o la que haya acordado por la Asamblea General y esté vigente.</p> <p>c) Aceptar el compromiso de participación que se establece para este tipo de socios/as en los presentes Estatutos.</p> <p>d) Asumir y cumplir acuerdos adoptados validamente por los órganos sociales de la Cooperativa, y la legislación cooperativa vigente, así como los presentes Estatutos Sociales y el Reglamento de Régimen Interior.</p> |
|---|---|

e) Eskaintzen zaion lanpostuan aritzeko eskatzen den titulazioa edo prestakuntza profesionala izatea, eta probaldia behar bezala gainditzea. Probaldia gutxienez sei hilabetekoa izango da, eta gehienez ere ikasturte bati dagokiona, Kontseilu Errektoreak ezartzen dituen lanpostuetan izan ezik, baldintza profesional bereziak eskatzen dituzten lanpostuetan, alegia; horietan probaldia hemezortzi hilabetera bitartekoa izan daiteke.

Ez da probaldirik egin beharko, bazkide berria besteren konturako langile gisa kooperatiban lanean aritu bada, probaldiari dagokion epean.

Probaldian:

- ✓ Kooperatibak eta bazkide-gaiak haien arteko harremana eten ahal izango dute alde bakarreko erabakiz.
- ✓ Ezin izango da hautatu sozietatearen organoetako karguak betetzeko.
- ✓ Ez da behartuta egongo ekarpena egitera, ez eta sarrerako kuota ordaintzera ere.
- ✓ Kooperatiban probaldian gertatzen diren galerek ez diete eragingo; kooperatibaren itzulkinak jasotzeko eskubidea ere ez dute izango. Hala ere, emaitza positiboetatik soldatapekoiei aitortzen zaien kopuru bera jasotzeko eskubidea izango dute.

f) Kontseilu Errektoreari onartua izateko eskaera egitea idatziz.

HIRU.- Iraupen mugatuko lan-bazkide gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Haren zerbitzua kontratatzeko gaitasuna izatea, eta kooperatibarekin gutxienez urtebeteko lan-harremana izatea.

e) Contar con la titulación o la capacitación profesional requerida para desempeñar el puesto de trabajo que se le ofrece y superar el período de prueba satisfactoriamente, cuyo plazo mínimo será de seis meses y un máximo de un período equivalente a un curso escolar, salvo aquellos puestos de trabajo que fije el Consejo Rector, cuyo desempeño exija especiales condiciones profesionales, en cuyo caso el período de prueba podrá ser de hasta dieciocho meses.

No procederá periodo de prueba si el nuevo socio llevase en la cooperativa, como trabajador por cuenta ajena, el tiempo que corresponda al periodo establecido.

Durante dicho período de prueba:

- ✓ La cooperativa y el aspirante podrán rescindir su relación por libre decisión unilateral.
- ✓ No podrá ser elegido para los cargos de los órganos de la sociedad.
- ✓ No estará obligado a hacer la aportación ni desembolsar la cuota de ingreso.
- ✓ No les alcanzará la imputación de las pérdidas que se produzcan en la cooperativa durante el período de prueba, ni tendrán derecho al retorno cooperativo, sin perjuicio de su derecho a percibir de los resultados positivos la misma cuantía que se reconozca a los asalariados.

f) Solicitar la admisión, mediante instancia escrita dirigida al Consejo Rector.

TRES.- Para la admisión de una persona como **socio/a de trabajo de vinculación determinada** deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Tener capacidad para contratar su prestación de trabajo y tener una relación laboral continuada con la Cooperativa por lo menos de 1 año.

- | | |
|--|---|
| <p>b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako ekarpena egitea, Estatutu Sozial hauetan bazkide horietarako ezartzen dena, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dena.</p> <p>c) Estatutu hauetan bazkide horientzat ezartzen den parte-hartze konpromisoa onartzea.</p> <p>d) Onartzea eta betetzea kooperatibaren gizarte-organoek hartutako akordioak, kooperatibei buruz indarrean diren legeak, Estatutu Sozial hauek eta Barne Araudia.</p> <p>e) Eskaintzen zaion lanpostuan aritzeko eskatzen den titulazioa edo prestakuntza profesionala izatea.</p> <p>f) Elkarrekin sinatzea. Kontratu horretan beharrezko klausula guztiak jasoko dira, eta zehaztuko da bazkideak kooperatibarekin noiz arte izango duen harremana.</p> <p>g) Kontseilu Errektoreari onartua izateko eskatzea.</p> | <p>b) Aceptar los compromisos sobre aportaciones a capital social, y realizar la aportación obligatoria inicial que se fija para estos socios/as en los presentes Estatutos Sociales o la que haya acordado por la Asamblea General y esté vigente.</p> <p>c) Aceptar el compromiso de participación que se establece para este tipo de socios/as en los presentes Estatutos.</p> <p>d) Asumir y cumplir los acuerdos adoptados validamente por los órganos sociales de la Cooperativa, y la legislación cooperativa vigente, así como los presentes Estatutos Sociales y el Reglamento de Régimen Interior.</p> <p>e) Contar con la titulación o la capacitación profesional requerida para desempeñar el puesto de trabajo que se le ofrece.</p> <p>f) Suscribir un contrato de sociedad que recoja todas las estipulaciones precisas y además se determine expresamente la temporalidad de su relación societaria con la Cooperativa.</p> <p>g) Solicitar la admisión, con instancia dirigida al Consejo Rector.</p> |
|--|---|

LAU. - Bazkide laguntzaile gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Hemezortzi urte baino gehiago edo nortasun juridiko nahikoa izatea.
- b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako ekarpena egitea, Estatutu Sozial hauetan bazkide horietarako ezartzen dena, edo Batzar Nagusian onartu eta indarrean dena.
- c) Estatutu hauetan bazkide horientzat ezartzen den parte-hartze konpromisoa onartzea.
- d) Onartzea eta betetzea kooperatibaren gizarte-organoek hartutako akordioak, kooperatibei buruz indarrean diren legeak, Estatutu Sozial hauek eta Barne Araudia.

CUATRO.- Para la admisión de una persona como **socio/a colaborador** deberá reunir los siguientes requisitos:

- a) Ser mayor de dieciocho años o tener personalidad jurídica suficiente.
- b) Aceptar los compromisos sobre aportaciones a capital social, y realizar la aportación obligatoria inicial que se fija para estos socios/as en los presentes Estatutos Sociales o la que haya acordado por la Asamblea General y esté vigente.
- c) Aceptar el compromiso de participación que se establece para este tipo de socios/as en los presentes Estatutos.
- d) Asumir y cumplir los acuerdos adoptados validamente por los órganos sociales de la Cooperativa, y la legislación cooperativa vigente, así como los presentes Estatutos Sociales y el Reglamento de Régimen Interior.

7. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO ERABAKIAK

BAT. - Kontseilu Errektoreari dagokio bazkideak onartzeko erabakiak hartzea.

BI. - Bazkideak onartzeko erabakiak bidezko arrazoi hauetan oinarrituta bakarrik mugatu daitezke:

- a) Kooperatibak zerbitzua emateko duen gaitasuna.
- b) Kooperatibaren antolaketa eta funtzionamendurako, bazkide berrien behar objektiboa.
- c) Probaldiaren ondoren, Zuzendaritzak egindako txostenak.

Bazkide bat onartzeko edo ez onartzeko erabakiak ezin du diskriminazio bidegaberik eragin, kooperatibaren helburu sozialari dagokionez.

8. ARTIKULUA. ONARTZEKO PROZEDURA

BAT. - Onarpen-eskabidea idatziz aurkeztuko zaio Kontseilu Errektoreari, eta kontseilu horretan 60 egunen buruan hartuko dute erabakia, eskaera jasotzen dutenetik kontatzen hasita.

Onarpen-eskabidea gutxienez probaldia bukatu baino 60 egun lehenago aurkeztuko zaio Kontseilu Errektoreari.

BI. - Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, eskaera onartutzat hartuko da.

ARTICULO 7. DECISIONES SOBRE LA ADMISION

UNO.- La decisión sobre la admisión de socios corresponde al Consejo Rector.

DOS.- Las decisiones sobre la admisión de socios sólo podrán ser limitadas por justa causa fundada:

- a) En la capacidad del servicio de la cooperativa.
- b) En las necesidades objetivas de nuevos socios que se precisen para la organización y funcionamiento de la cooperativa.
- c) En los informes que, formulados por la Dirección, hayan resultado del período de prueba.

La aceptación o la denegación de la admisión no podrán producirse por causas que supongan una discriminación arbitraria o ilícita, en relación con el objeto social.

ARTICULO 8. PROCEDIMIENTO DE ADMISION

UNO.- La solicitud de admisión se formulará por escrito al Consejo Rector, quienes resolverán en un plazo no superior a 60 días a contar desde el recibo de aquella.

La solicitud de admisión cuando se trate de socios de trabajo se presentará al menos 60 días antes de la finalización del periodo de prueba al Consejo Rector.

DOS.- Transcurrido dicho plazo, sin resolución expresa se entenderá aprobada la admisión.

9. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO ERABAKIEN AURKAKO HELEGITEAK

BAT. - Eskatzaileak helegitea aurkez dezake ukatzeko erabakiaren aurka Batzar Nagusian. Horretarako, 20 eguneko epea du, baliozko jakinarazpena egiten denetik kontatzen hasita. Eta batzarrak helegite horri buruzko erabakia hartuko du, interesdunari entzun ondoren, helegitea jaso ondoren egiten duen lehenengo bileran, isilpeko bozketaren bitartez.

BI. - Onartzeko erabakiaren aurka helegitea aurkez daiteke Batzar Nagusian, gutxienez, bazkideen % 10ek eskatuz gero. Horretarako, 20 eguneko epea dago, akordioa jakinarazten denetik kontatzen hasita.

Lan-bazkideei dagokienez, onartzeko akordioaren aurkako helegitea lan-bazkideen % 20ek, gutxienez, eskatuta ere aurkez daiteke.

Nolanahi ere, Batzar Nagusiak hartuko du erabakia, helegitea jaso ondoren egiten duen lehenengo bileran, interesdunari entzun ondoren. Isilpeko bozketaren bidez hartuko du erabakia.

10. ARTIKULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA

BAT. - Eskubide eta betebehar sozialek eragina izango dute onarpen-akordioa hartzen den egunetik aurrera.

Akordio hori aurkaratuko balitz, etenda geratuko litzakete, Batzar Nagusiak horri buruzko erabakia hartu arte.

BI. - Lan-bazkide izan nahi dutenek probaldian lan-bazkideen eskubide eta betebehar berberak izango dituzte, 6.bi.e artikuluan deskribatutako xehetasunekin.

ARTICULO 9. RECURSOS CONTRA LAS RESOLUCIONES SOBRE LA ADMISION

UNO.- El acuerdo denegatorio podrá ser recurrido por el solicitante, ante la Asamblea General en el plazo de 20 días hábiles siguientes al de la notificación validamente hecha, quien resolverá, previa audiencia del interesado, en la primera sesión que celebre, a contar desde la recepción del recurso, mediante votación secreta.

DOS.- El acuerdo de admisión podrá ser recurrido ante la Asamblea General, dentro del mismo plazo de 20 días hábiles siguientes al de la notificación del acuerdo, a petición del 10%, como mínimo, de los socios.

En caso de referirse a un socio de trabajo, el acuerdo de admisión podrá ser impugnado además a petición del 20%, como mínimo, de los socios de trabajo.

En todo caso la Asamblea General resolverá, en la primera sesión que celebre, a contar desde la recepción del recurso, previa audiencia del interesado, mediante votación secreta.

ARTICULO 10. COMIENZO DE LOS DERECHOS Y OBLIGACIONES SOCIALES

UNO.- Los derechos y las obligaciones sociales comenzarán a surtir efecto desde el día en que se adoptó el acuerdo de admisión.

Si se recurriese dicho acuerdo, éste quedará en suspenso hasta que sea resuelto por la Asamblea General.

DOS.- Los aspirantes a socios de trabajo, durante su período de prueba, tienen los mismos derechos y obligaciones que los socios de trabajo, con las particularidades descritas en el artículo 6-Dos-e).

11. ARTIKULUA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK

Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Batzar Nagusiaren eta gainerako organoen bileretara joatea, deialdia egiten bazaie.
- b) Kargu bat betetzeko hautatuak badira, onartu egin behar dute, bidezko arrazoirik izan ezean.
- c) Bazkide gisa dagozkion betebeharrak ekonomikoak onartzea.
- d) Kooperatibaren helburu sozialarekin lotutako jardueretan parte hartzea. Horretarako, parte hartzeko modulu edo arau batzuk ezartzen dira, kooperatibaren bazkide mota bakoitzarentzat:

• Bazkide erabiltzaileentzat: seme-alabak edo tutoretzapean dauzkaten haurrak kooperatibara bidaltzea ematen diren irakaskuntza-zikloetan, edo eskatzen dituzten zerbitzuak erabiltzea; eta unean-unean ezartzen diren ekarpen eta kuotak ordaintzea.

• Iraupen mugagabeko lan-bazkideentzat: Kooperatiban lanean aritzea erabateko arduraldian, betebeharrak horretatik aske uzteko arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik; halakoetan Kontseilu Errektoreak hartuko du erabakia.

• Iraupen jakina duten lan-bazkideentzat: kooperatiban lanean aritzea erabateko arduraldian edo zatiko arduraldian, kooperatiban sinatutako kontratuaren arabera; betebeharrak horretatik aske uzteko arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik; halakoetan Kontseilu Errektoreak hartuko du erabakia.

ARTICULO 11. OBLIGACIONES DE LOS SOCIOS

Los/las socios/as están obligados a:

- a) Asistir a las reuniones de las Asambleas Generales y demás órganos a los que fuesen convocados/as.
- b) Aceptar los cargos para los fueran elegidos/as, salvo justa causa de excusa.
- c) Asumir las obligaciones económicas que se deriven de su condición de socio
- d) A participar en las actividades que constituyen el objeto social de la cooperativa. A estos efectos se fijan como módulos o normas mínimas de participación, para cada uno de los diferentes tipos de socios/as de la Cooperativa, los siguientes:

• Para los/las socios/as usuarios: enviar a sus hijos/as o tutelados/as a la Cooperativa durante los ciclos de enseñanza que se impartan o utilizar los servicios que demanden, a pagar las aportaciones y cuotas periódicas que se fijen en cada momento.

• Para los/las socios/as de trabajo de duración indefinida: dedicación exclusiva de su prestación de trabajo en la Cooperativa, salvo cuando existan causas justificadas para liberarles de esta obligación en la medida que proceda, en cuyos supuestos decidirá el Consejo Rector.

• Para los/las socios/as de trabajo de vinculación determinada: dedicación exclusiva o parcial de conformidad con el contrato suscrito en la Cooperativa, salvo cuando existan causas justificadas para liberarles de esta obligación en la medida que proceda, en cuyos supuestos decidirá el Consejo Rector.

• Bazkide laguntzaileentzat eta bazkide ez aktibo edo ez erabiltzaileentzat: kooperatibari laguntzeko prest egotea, eta helburu soziala garatzeko edo hobetzeko ematen zaizkion zereginak egitea.

- e) Kooperatibaren barnean giro egokia eta errespetuzko elkarbizitza izan daitezen ahaleginak egitea.
- f) Kooperatibak duen helburu sozialari lehia egiten dion jarduerarik ez egitea, eta horrelako jarduerak egiten dituztenei ez laguntzea, Kontseilu Errektoreak berariaz baimentzen ez badu.
- g) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea, horiek zabaltzeak gizarte-interesak kaltetu ditzakeenean.
- h) Kapital sozialari ekarpenak egitea, aurreikusitako baldintzetan; eta aldizkako kuotak ordaintzea, ezartzen diren epeetan.
- i) Galeren ezarpena beren gain hartzea Batzar Nagusiak erabakitako kopuruan
- j) Bazkide erabiltzaileek joan egin behar dute beren seme-alaben edo tutoretzapeko haurren arduradunek, kooperatiban egiten ari diren ikasketetan izandako garapenaren berri emateko, egiten dituzten bileretara. Halaber, kooperatibako beste zerbitzu batzuen hartzaileek joan egin behar dute deitzen dituzten bileretara.
- k) Lege-arauetan eta estatutuetan jasotako gainerako betebeharrak, eta kooperatibaren organoek hartutako akordioetatik eratorritako betebeharrak betetzea.

BI. - Betebehar horiek, mota bereko bazkide guztientzat berdinak direnak, lege-arauen, estatutuen eta Kooperatibako organoen baliozko akordioen arabera bete beharko dira.

• Para los/las socios/as colaboradores y los/las inactivos o no usuarios: estar a disposición de la Cooperativa para colaborar y realizar los cometidos que les encomienden para el desarrollo y mejora del objeto social.

- e) Contribuir a un adecuado clima social y a una respetuosa convivencia en el seno de la cooperativa.
- f) No realizar actividades competitivas con el objeto social que desarrolle la cooperativa, ni colaborar con quien las realice, salvo que sean autorizados expresamente por el Consejo Rector.
- g) Guardar secreto sobre actividades y datos de la cooperativa cuando su divulgación pueda perjudicar los intereses sociales.
- h) Desembolsar sus aportaciones al capital social en las condiciones previstas y pagar las cuotas periódicas en los plazos que se fijen.
- i) Asumir la imputación de las pérdidas en la cuantía acordada por la Asamblea General.
- j) Los/las socios/as usuarios deberán acudir a las reuniones que se concierten por los/las responsables de sus hijos/as o tutelados/as para informarles y exponerles las evoluciones y su situación con respecto a los estudios que están realizando en la cooperativa, así como a las reuniones a las que fueren convocados los socios receptores de otros servicios de la cooperativa.
- i) Cumplir los demás deberes que resulten de las normas legales y estatutarias, así como los que deriven de los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de la cooperativa

DOS.- Estas obligaciones, iguales para todos los socios de la misma modalidad serán cumplidas de conformidad con las normas legales y estatutarias y acuerdos válidamente adoptados por los órganos de la Cooperativa.

12. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

BAT. - Bazkideen eskubideak hauek dira:

- a. Kooperatibaren organoetako karguak betetzeko hautaketak egitea eta hautatuak izatea.
- b. Batzar Nagusiak eta partaide diren gainerako organoek erabakiak hartzeko garaian, proposamenak egitea eta parte hartzea, ahotsarekin eta botoarekin.
- c. Kooperatibaren jardura eta zerbitzu guztietan parte hartzea, inolako bereizkeriarik gabe.
- d. Eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar duen informazioa jasotzea. Horrez gain, estatutu sozial hauen hurrengo artikuluan aurreikusitako eskubideak izango dituzte bazkideek.
- e. Ekarpena berreskuratzeko eskaera, kooperatiban baja ematen badu edo kooperatiba desegiten bada.
- f. Bazkide erabiltzaileek eskubidea dute aldian-aldian haien seme-alaben edo tutoretzapekoen eboluzioaren berri jasotzeko, kooperatibak horretarako izendatutako arduradunaren bitartez. Horretarako, aurrez aurreko bilerak egingo dira, aurretik adostuta. Kooperatibaren beste zerbitzu batzuen erabiltzaileek ere arreta berbera jasoko dute.
- g. Kooperatibaren gizarte-organoen baliozkotasunez hartutako akordioak betearaztea.
- h. Kooperatiba-itzulkinak jasotzea, hala badagokio.
- i. Informazioa jasotzeko eskubidea, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.
- j. Legeetatik eta estatutu hauetatik ondorioztatzen diren gainerakoak

ARTICULO 12. DERECHOS DE LOS SOCIOS

UNO.- Los/las socios/as tendrán derecho a:

- a) Elegir y ser elegidos/as para los cargos de los órganos de la cooperativa.
- b) Formular propuestas y participar con voz y voto en la adopción de todos los acuerdos de la Asamblea General y de los demás órganos de los que formen parte.
- c) Participar en todas las actividades y servicios de la cooperativa, sin discriminación.
- d) Recibir la información necesaria para el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones. Todo ello sin perjuicio de lo previsto en el artículo siguiente de los presentes Estatutos Sociales.
- e) Solicitar el reembolso de su aportación en caso de baja o de disolución de la Cooperativa.
- f) A recibir periódicamente, los/las socios/as usuarios, información de la evolución de sus hijos/as o tutelados/as a través del responsable designado a tal efecto por la cooperativa, mediante reuniones concertadas previamente y de forma personalizada. Dicha información y atención se tendrá para con los usuarios de otros servicios de la cooperativa.
- g) Hacer cumplir los acuerdos validamente adoptados por los órganos sociales de la Cooperativa.
- h) El retorno cooperativo, en su caso.
- i) Exigir información de acuerdo con lo establecido en el artículo siguiente.
- j) Los demás que resulten de las leyes y de los estatutos.

BI. - Nolanahi ere, bazkideek beren eskubideak gauzatuko dituzte, legezko arauen, estatutueta arauen eta kooperatibako gizarte-organoek baliozkotasunez hartutako erabakien arabera.

13. ARTIKULUA. INFORMAZIO-ESKUBIDEA

BAT. - Bazkideek informazio-eskubidea erabili ahal izango dute, legetan, estatutueta edo Batzar Nagusiaren akordioetan aurreikusten den moduan. Horietan bazkideen eskubide hau gauzatzeko bide egokiak ezar daitezke.

BI. - Bazkide orok informazio-eskubide hauek izango ditu:

- a) Kooperatibaren Estatutu Sozialen kopia bat eskatzeko eskubidea, eta, baldin badago, baita Barne Araudiarena ere.
- b) Kooperatibaren erregistro-liburua eta Batzar Nagusiaren akta-liburua aztertze eskubidea, eta Batzar Nagusiaren aktaren eta akordioen kopia ziurtatua eta bazkideek erregistro-liburuan egindako idazketen ziurtagiria eskuratzeko eskubidea, aldez aurretik eskaera arrazoitua egin ondoren.
- c) Bazkideari berari zuzenean eragiten dioten Kontseilu Errektorearen erabakien kopia ziurtatua eskatzeko eskubidea.
- d) Bazkideak eskubidea du kooperatibaren barruan duen egoera ekonomikoaren berri eman diezaion Kontseilu Errektoreak, eskaera egiten duenetik hilabeteko epean.

DOS.- En todo caso los/las socios/as ejercitaran sus derechos de conformidad con las normas legales y estatutarias y los acuerdos validamente adoptados por los órganos sociales de la cooperativa.

ARTICULO 13. DERECHO DE INFORMACION

UNO.- Los socios podrán ejercitar el derecho de información en los términos previstos en la ley, en los Estatutos o en los acuerdos de la Asamblea General, que podrán establecer los cauces que consideren oportunos para facilitar y hacer efectivo este derecho de los socios.

DOS.- Todo socio tendrá derecho a:

- a) Solicitar una copia de los Estatutos Sociales de la cooperativa, y en su caso, del Reglamento de Régimen Interno.
- b) Examinar el Libro Registro de Socios de la cooperativa y el Libro de Actas de la Asamblea General, y a obtener previa solicitud motivada copia certificada del acta y de los acuerdos adoptados en la Asamblea General, así como certificación de las inscripciones en el libro registro de socios.
- c) Solicitar copia certificada de los acuerdos del Consejo Rector que le afecten individualmente.
- d) Que se le informe por el Consejo Rector en el plazo máximo de un mes, desde su solicitud, sobre su situación económica en relación con la cooperativa.

HIRU.- Bazkide guztiek Kooperatibaren funtzionamenduari edo emaitzei buruzko informazioa eska diezaiokete Kontseilu Errektoreari, idatziz. Kontseilu Errektoreak hamabost egunen buruan erantzun beharko dio eskaera horri, egiten den lehenengo Batzar Nagusian.

LAU. - Bazkideek Batzar Nagusian ahoz eska ditzakete ekitaldiko kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruzko azalpenak edo argibideak. Horretarako, kontuak jasotzen dituzten agiriak kooperatibaren egoitza sozialean egongo dira ikusgai, batzarrerako deialdiaren epean bazkideek horiek aztertzeke aukera izan dezaten.

Halaber, epe berean bazkideek eskubidea izango dute egoitza sozialean agiri hauek aztertzeke: Kontseilu Errektorearen txostena, Zaintza Batzordearen kudeaketa-txostena, eta, hala badagokio, kontuen kanpoko ikuskaritzari buruzko txostena.

Epe horretan bazkideek idatziz eskatu ahal izango dituzte, gutxienez batzarra baino bost egun lehenago, agiri ekonomikoei buruzko azalpenak eta argibideak, batzarrean erantzun daitezten.

BOST. - Aurreko atalean ezarritako eskubidez gain, elkarteko botoen %10, gutxienez, ordezkatzeko duten bazkideek, edozein unetan beharrezkoa iruditzen zaien informazioa eskatu ahal izango dute idatziz. Kontseilu Errektoreak eskatutako informazioa eman beharko die idatziz, hogeita hamar egunen buruan.

TRES.- Todo socio podrá solicitar por escrito al Consejo Rector las aclaraciones o informes que considere necesarios sobre cualquier aspecto del funcionamiento o de los resultados de la cooperativa, que deberán ser respondidos en la primera Asamblea General que se celebre, pasados quince días desde la presentación del escrito.

CUATRO.- Los socios podrán solicitar verbalmente en la Asamblea General en la que haya de deliberarse sobre las cuentas del ejercicio o cualquier propuesta económica, las explicaciones o aclaraciones referidas a ellas, a cuyo fin los documentos que reflejen las cuentas deberán estar puestas de manifiesto en el domicilio social de la cooperativa, para que puedan ser examinadas por los socios durante el plazo de convocatoria.

Durante el mismo plazo los socios tendrán derecho a examinar en el domicilio social el informe del Consejo Rector, el informe de gestión de la Comisión de Vigilancia y en su caso, el informe de la auditoría externa de cuentas.

Durante este plazo los socios podrán solicitar por escrito, al menos con cinco días de antelación a la celebración de la Asamblea, las explicaciones y aclaraciones referidas a aquella documentación económica para que sean contestadas en el acto de la Asamblea.

CINCO.- Sin perjuicio del derecho establecido en el apartado uno anterior, los socios que representen al menos el 10% del total de votos podrán solicitar en todo momento por escrito la información que consideren necesaria. El Consejo Rector deberá proporcionar por escrito la información solicitada, en un plazo no superior a treinta días.

SEI. - Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak Kooperatibak dituen gorabehera sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei, gutxienez hiru hilean behin eta egokia iruditzen zaion moduan.

ZAZPI. - Kontseilu Errektoreak eskatutako informazio hori ukatzerik izango du, eskaera ausartegia edo oztopatzailea denean, edo informazioa emateak kooperatibaren interes legítimoak arriskuan jartzen dituzenean. Hala ere, ez da salbuespen hori egingo, ukatutako informazioa Batzar Nagusian eman behar denean, eta bertaratutakoen erdiak baino gehiagok informazio-eskaera horren aldeko botoa ematen dutenean; eta gainerako kasuetan, Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean, informazioa eskatu dutenek helegitea jarri izanaren ondorioz.

Eskatzaileek ezezko erantzun horren aurka egin ahal izango dute, 4/1993 Legearen 25. artikuluan eta Prozedura Zibilarren Legearen 2.166. artikuluan xedatutakoarekin bat.

ZORTZI. - Berme-sistema hau ezartzen da:

- a) Informazio-eskaera guztiak sinatuta aurkeztu behar dira; eskaera egiten duten bazkideek beren datuak adieraziko dituzte, eta baita eskaeraren arrazoiak ere.
- b) Informazio-eskaera bazkideen % 20k gutxienez sinatzen badu, Kontseilu Errektoreak bi hereneko gehiengo kalifikatua beharko du eskaerari ezezkoa emateko.
- c) Kontseilu Errektoreak informazio-eskaera ukatzeko ematen duen akordioa Batzar Nagusiaren aurrean aurkaratu ahal izango da, akordioa jakinarazten denetik, hogeiguneko epean.

SEIS.- En todo caso, el Consejo Rector deberá informar a los socios o a los órganos que les representen, trimestralmente al menos, y por el cauce que estime conveniente de las principales variables socio-económicas de la cooperativa.

SIETE.- El Consejo Rector sólo podrá denegar la información solicitada cuando la solicitud resulte temeraria u obstruccionista, o el proporcionarla ponga en grave peligro los intereses legítimos de la cooperativa. No obstante, no procederá esta excepción cuando la información denegada haya de proporcionarse en el acto de la Asamblea General y la solicitud de información sea apoyada por más de la mitad de los votos presentes y representados, y, en los demás supuestos, cuando así lo acuerde la Asamblea General como consecuencia del recurso interpuesto por los solicitantes de la información.

Esta negativa podrá ser impugnada por los solicitantes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 4/1993 y 2.166 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

OCHO.- Se establece el siguiente sistema de garantías:

- a. Toda solicitud de información deberá ir suscrita por los socios que la requieran debidamente identificados con exposición motivada de las razones de la solicitud.
- b. Si la petición de información viene suscrita por el 20% al menos de los socios, el acuerdo denegatorio del Consejo Rector exigirá una mayoría cualificada de dos tercios.
- c. El acuerdo denegatorio de información adoptado por el Consejo Rector podrá ser recurrido ante la Asamblea General, en el plazo de veinte días a contar desde la notificación del acuerdo.

Batzar Nagusiak hartuko du helegiteari buruzko erabakia, helegitea jaso ondoren egiten duen lehenengo bileran, interesdunari entzun ondoren. Isilpeko bozketaren bidez hartuko du erabakia.

BEDERATZI. - Berehala jakinarazi behar zaio Zaintza Batzordeari, eta egiten den lehenengo Batzordean ere bai, kooperatibak egiten duen edozein kudeaketa edo prozedura, gai hauekin lotura duena: erakundearen desegitea, kooperatibaren hezkuntza-jarduera bukatzea, hezkuntza-titularitatea eta/edo kooperatibaren ondarea erakunde publiko edo pribatuei lagatzea.

14. ARTIKULUA BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA

BAT. - Bazkideek edozein unetan utz dezakete kooperatiba beren borondatez, aurrez Kontseilu Errektoreari idatziz jakinarazi ondoren. Lau hilabete lehenago jakinarazi behar dute kooperatiba uzteko asmoa, ezinbesteko arrazoi bat dagoenean izan ezik.

Hala ere, Kontseilu Errektoreak hala adierazten badu, lan-bazkideari ikasturte bukaera arte kooperatiban jarraitzeko eska dakioko.

BI. - Borondatezko bajak justifikatu gabetzat hartuko dira, aurrez jakinarazteko epea betetzen ez bada, edo kooperatiban egoteko gutxieneko epean uzten bada, kooperatibaren Kontseilu Errektoreak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, aurkakoa erabakitzen ez badu behintzat. Horrez gain, bazkideari eska dakioko kooperatibaren jarduerak eta zerbitzuak betetzeko, bere gain hartutako betebeharrak diren heinean, eta, hala badagokio, kalte eta galeren ordaina ere bai.

HIRU. - Borondatezko baja justifikatu gabetzat hartuko da, bazkideak egingo duen jarduera kooperatibaren jarduerarekin lehian badago.

El recurso será resuelto por la Asamblea General, en la primera sesión que celebre, a contar desde la recepción del recurso, previa audiencia del interesado, mediante votación secreta.

NUEVE.- En concreto, deberá informarse a la Comisión de Vigilancia con carácter inmediato y a la primera Asamblea que se celebre, de cualquier gestión o procedimiento realizados por la cooperativa y que puedan estar relacionados con la disolución de la entidad, el cese de la actividad educativa de la cooperativa, la cesión de la titularidad educativa y/o del patrimonio de la cooperativa a organismos públicos o privados.

ARTICULO 14. BAJA VOLUNTARIA DEL SOCIO

UNO.- El socio/a podrá darse de baja voluntariamente en la cooperativa en todo momento, mediante preaviso por escrito al Consejo Rector, con cuatro meses de antelación, salvo causa de fuerza mayor.

No obstante, por indicación del Consejo Rector, se podrá exigir al socio de trabajo su permanencia en la Cooperativa hasta finalizar el curso escolar.

DOS.- El incumplimiento del plazo de preaviso, así como las bajas que dentro de los plazos mínimos de permanencia se produjeran, tendrán la consideración de bajas no justificadas, salvo que el Consejo Rector de la cooperativa, atendiendo a las circunstancias del caso, acordara lo contrario. Todo ello sin perjuicio de que pueda exigirse al socio/a, además, el cumplimiento de las actividades y servicios cooperativos en los términos en que venía obligado y, en su caso, la correspondiente indemnización de daños y perjuicios.

TRES.- Se considerará que la baja voluntaria es no justificada cuando el socio vaya a realizar actividades competitivas con la Cooperativa.

LAU. - Kooperatibak akordio hauek hartzen ditue-
nean: jarduera luzatzea, kooperatibaren bategitea,
desagertzea edo eraldatzea, kooperatibaren hel-
buru soziala funtsean aldatzea, edo kapitalari ekar-
pen gehiago egiteko betebeharra ezartzea; akordio
horren aurkako botoa ematen duen bazkidearen
baja justifikatuztat joko da, eta baita, Batzar Nagu-
sira agertu ez arren, akordioarekin ados ez dagoela
adierazten duen bazkidearena ere.

BOST. - Bazkide izateari utziz gero, Kooperatiban
lan egiteari utziko zaio (lan-bazkidea), zerbitzuak
emateari utziko zaio (bazkide erabiltzailea),
laguntzeari utziko zaio (bazkide laguntzailea), eta
CUATRO.- El acta de la reunión, firmada por el Presidente y el Secretario recogerá los debates de forma sucinta, el texto de los acuerdos, así como los resultados de las votaciones, que se transcribirá en el Libro de Actas del Consejo Rector.

BOST.- Kontseilu Errektoreak bertaratutako kideen heren baten aldeko botoak beharko ditu akordio hauek hartzeko:

- a) Jarduera-zentro nagusi bat edo horren zati garrantzitsu bat ixtea edo lekuz aldatzea.
- b) Kooperatibaren jarduera murriztea, zabaltzea edo nabarmen aldatzea.
- c) Kooperatibaren antolamenduan aldaketa garrantzitsuak egitea.
- d) Beste erakunde batzuekin (kooperatibak izan ala ez izan) harremanak egin edo etetea, betiere Kooperatibarentzat lankidetzaharreman iraunkorra eta baliagarria izanik.

SEI.- Kontseilu Errektoreko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da, Kontseilu Errektorearen ahalmenen bat Batzorde Exekutiboari edo kontseilari ordezkari bati iraunkorki eskualdatzeko, eta kargu horiek beteko dituzten Kontseiluko kideak izendatzeko; eta erabaki horiek ez dute eraginik izango Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

CINCO.- El Consejo Rector necesitará el voto favorable de al menos dos tercios de los asistentes para adoptar los siguientes acuerdos:

- a) Cierre o traslado de un centro principal de actividad o de una parte significativa del mismo.
- b) Restricción, ampliación o modificación sustanciales de la actividad de la cooperativa.
- c) Cambios de trascendencia para la organización de la cooperativa.
- d) Establecimiento o extinción de vínculo con otras entidades, cooperativas o no, que supongan una relación de colaboración permanente y valiosa para la cooperativa.

SEIS.- La delegación permanente de alguna facultad del Consejo Rector en la Comisión Ejecutiva o en un consejero delegado y la designación de los miembros del Consejo que hayan de ocupar tales cargos, requerirán para su validez el voto favorable de las dos terceras partes de los componentes del Consejo Rector y no producirá efectos hasta su inscripción en el Registro de Cooperativas.

**34. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREARI
BURUZKO XEDAPENAK**

BAT.- Kontseilu Errektoreko **Lehendakariari** eginkizun hauek dagozkie:

- a) Kooperatibaren ordezkari izatea, Kontseilu Errektorearen izenean, era guztietako gaitan, eta Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren bileren buru izatea.
- b) Botereak ematea eta agiri publiko nahiz pribatuak sinatzea, Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako akordioak betetze aldera.
- c) Kontseilu Errektorean akordioak hartzeko garaian gerta daitezkeen berdinketak erabakitzea haren botoarekin.
- d) Premiazko erabakiak hartzea, eta berehala horien berri ematea Kontseilu Errektorearen hurrengo bileran.
- e) Bere sinadurarekin ordainketak baimentzea.
- f) Kontseilu Errektoreak haren esku uzten dituen ekintzak, kudeaketak eta betebeharrak egitea.

BI.- Lehendakariordea lehendakariaren ordezarituko da eta lehendakariari emandako eginkizunak beteko ditu jardunean, hura ez dagoenean. Halaber, Kontseilu Errektoreak eta lehendakariak haren esku uzten dituen eginkizunak beteko ditu, bereziki lehendakariak Kontseilu Errektoreko beste kide batzuei eskuordetu diezazkiokeen kudeaketak.

**ARTICULO 34. DISPOSICIONES REFERENTES
AL CONSEJO RECTOR**

UNO.- Al **Presidente** del Consejo Rector le corresponderá:

- a) Representar a la Cooperativa, en nombre del Consejo Rector, en toda clase de asuntos, así como presidir las reuniones de dicho Consejo y de la Asamblea General.
- b) Otorgar poderes y suscribir documentos, públicos o privados, en cumplimiento de los acuerdos adoptados por la Asamblea General o el Consejo Rector.
- c) Dirimir con su voto los empates que puedan producirse en el Consejo Rector a la hora de adoptar acuerdos.
- d) Adoptar las decisiones que tengan el carácter de urgentes, debiendo dar cuenta inmediata de las mismas en la primera reunión del Consejo Rector que se realice.
- e) Autorizar con su firma los pagos que se efectúen.
- f) Realizar las acciones, gestiones y cometidos que el Consejo Rector le encomiende.

DOS.- El Vicepresidente sustituirá al Presidente y realizará en funciones las labores atribuidas al Presidente en caso de ausencia de éste. Asimismo desempeñará las labores y gestiones que se le encomiende por parte del Consejo Rector y del Presidente, en especial aquellas gestiones en las que el Presidente pueda delegar en otros miembros del Consejo Rector.

HIRU.- Idazkariak eginkizun hauek izango ditu:

- a. Espedienteak osatzea eta horiek behar bezala izapidetzea.
- b. Lehendakariarentzat eta lehendakariordearentzat ez diren gutunak eta agiriak sinatzea.
- c. Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen batzarren deialdiak idaztea eta bideratzea.
- d. Lehen aipatutako organoen batzarretako aktak egitea.
- e. Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen batzarretako artxibo, erregistro-liburu eta akta-liburuen gordetzaille izatea.
- f. Kooperatibaren liburu eta agiriei dagozkien ziurtapenak igortzea, lehendakariaren oniritziarekin.
- g. Kontseilu Errektoreak ematen dizkionak.

35. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUN-EGINTZA

BAT.- Kontseilu Errektoreko kideek ez dute ordainsari berezirik jasoko beren karguagatik, eginkizun horiek egitea doakoa baita; hala ere, kontseilariak beren eginkizunak egiterakoan izan ditzaketen gastuak ordaindu beharko zaizkie.

BI.- Kontseilu Errektoreko kideek beren karguak beteko dituzte, ordezkari leial eta kudeatzaile ordenatuek beteko lituzketen moduan, eta legearen edo Estatutuen aurka edo behar bezalako arretaz egin ez diren egintzek eragindako kalteen erantzule izango dira.

TRES.- El **Secretario** tendrá las siguientes funciones:

- a. Formar expedientes y dar a los mismos el trámite debido.
- b. Firmar la correspondencia y documentos que no estén reservados al Presidente ni al Vicepresidente.
- c. Redactar y cursar las convocatorias de las Asambleas Generales y Consejos Rectores.
- d. Levantar las actas de las sesiones de los antedichos órganos.
- e. Ser depositario del archivo, libros-registro, libros de actas de la Asamblea General y del Consejo Rector.
- f. Librar las certificaciones con referencia a los libros y documentos de la Cooperativa, con el Visto Bueno del Presidente.
- g. Las que el Consejo Rector le atribuya.

ARTICULO 35. RESPONSABILIDADES DE LOS MIEMBROS DEL CONSEJO RECTOR Y DE LA ACCION DE RESPONSABILIDAD

UNO.- Los miembros del Consejo Rector no percibirán remuneración específica por el hecho de su cargo, ya que el desempeño de sus funciones es de carácter gratuito, sin perjuicio de las compensaciones económicas procedentes por los gastos en los que puedan incurrir -los consejeros en el desempeño de sus funciones.

DOS.- Los miembros del Consejo Rector desempeñarán sus cargos con la diligencia que corresponde a un representante leal y ordenado gestor, respondiendo de los daños que causen por los actos contrarios a la ley o a los Estatutos o realizados sin la diligencia debida.

Egintza kaltegarria burutu edo akordio kaltegarria hartu duen organoko kide guztiak erantzule solidarioak izango dira, salbu akordio edo egintza kaltegarrian parte hartu ez zutela eta horren berri ez zutela frogatzen dutenak, edo horren berri izanik, kaltea ekiditeko ahal zuten guztia egin zutenak, edo behintzat, horren aurka zeudela adierazi zutenak.

Egintza edo akordio kaltegarria Batzar Nagusiak hartu, baimendu edo berretsi izanak ez du erantzukizunetik salbuetsiko.

HIRU.- Kontseilu Errektoreko kideen aurka erantzukizuna eskatzeko gizarte egintza abiarazi ahal izango du kooperatibak, aurrez Batzar Nagusiak gehiengo arruntaz erabaki ondoren, gaitzerrendan ez badago ere. Edozein unetan Batzar Nagusiak egintza hau onartu edo egintzari uko egin diezaioke. Batzar Nagusiak erantzukizuna eskatzeko egintza sustatzeko akordioa hartzen badu, eragindako Kontseilu Errektoreko kideak automatikoki kargugabetuko dira.

Kooperatibak erantzukizuna eskatzeko egintza abiarazten ez duenean, aedozein bazkidek abiarazi ahal izango du, dagokion akordioa hartu eta ondorengo hiru hilabeteetan.

LAU.- Erantzukizuna eskatzea eragin duten ekintzak gertatu edo horien berri izan eta handik bi urtera preskribatuko da egintza.

BOST.- Aurreko zenbakietan xedatutakoa hala izanik ere, bazkideek eta hirugarrenek egintzak abiaraz ditzakete Kontseilu Errektoreko kideen ekintzengatik, haien interesak zuzenean kaltetzen badituzte.

Serán responsables solidariamente todos los miembros del órgano que realizó el acto o adoptó el acuerdo lesivo, salvo los que prueben que, no habiendo intervenido en su adopción o ejecución desconocían su existencia o, en caso de conocerla, hicieron todo lo posible para evitar el daño, o al menos se opusieron expresamente a aquella.

No exonerará de responsabilidad el hecho de que el acto o acuerdo lesivo haya sido adoptado, autorizado o ratificado por la Asamblea General.

TRES.- La acción social de responsabilidad contra los miembros del Consejo Rector podrá ser ejercitada por la cooperativa previo acuerdo de la Asamblea General, por mayoría ordinaria, aunque no figure en el Orden del Día. En cualquier momento la Asamblea General podrá transigir o renunciar al ejercicio de la acción. El acuerdo de la misma de promover la acción de responsabilidad implica la destitución automática de los miembros del Consejo Rector afectados.

Cuando la cooperativa no entable la acción de responsabilidad, dentro de tres meses contados desde la fecha de adopción del correspondiente acuerdo, podrá ejercitarla cualquier socio.

CUATRO.- La acción prescribirá a los dos años de producirse los actos que hayan originado dicha responsabilidad o desde su conocimiento.

CINCO.- No obstante lo dispuesto en los números precedentes, quedan a salvo las acciones individuales que puedan corresponder a los socios y terceros por actos de los miembros del Consejo Rector que lesionen directamente los intereses de aquellos.

36. ARTIKULUA. AKORDIOAK
AURKARATZEA

BAT. Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkaratu ahal izango dira, Legearen aurkakoak badira, Estatutuen aurkakoak badira, edo kooperatibaren interesak kaltetzen badituzte, bazkide batzuen edo hirugarren batzuen mesedetan.

Legearen aurkako akordioak baliogabeak izango dira, eta aipatutako gainerako akordioak baliogabegarriak izango dira.

Ezin izango dira aurkaratu indarrik gabe utzitako akordioak edo balio osoz beste akordio batzuekin ordezkatu diren akordioak.

BI. Akordio baliogabeak aurkaratzeko egintzak abiarazteko zilegitasuna dute:

- a) Bazkide guztiek, akordioaren berri izan eta 60 eguneko epean, baldin eta akordioa hartu denetik urtebete pasa ez bada.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek, akordioa hartu denetik 60 eguneko epean.

HIRU. Akordio baliogabegarriak aurkaratzeko egintzak abiarazteko zilegitasuna dute:

- a) Gizarte botoa duten bazkideen % 10ek, bi a) atalean aurreikusitako epean.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek, bi b) atalean aurreikusitako epean.

LAU. Aurkaratzeak aurreikusitako ondorioak izango ditu, eta 30. artikuluko laugarren atalean Batzar Nagusiaren akordioak aurkaratzeko ezarritakoarekin bat izapidetuko da.

ARTICULO 36. IMPUGNACION DE
ACUERDOS

UNO. Podrán ser impugnados los acuerdos del Consejo Rector, que sean contrarios a la Ley, se opongan a los Estatutos, o lesionen, en beneficio de uno o varios socios o de terceros, los intereses de la Cooperativa.

Serán nulos los acuerdos contrarios a la Ley y el resto de los citados serán anulables.

No procederá la impugnación de un acuerdo que haya sido dejado sin efecto o sustituido válidamente por otro.

DOS. Están legitimados para el ejercicio de las acciones de impugnación de acuerdos nulos:

- a) Cualquier socio, en el plazo de 60 días desde su conocimiento y siempre que no haya transcurrido un año desde su adopción,
- b) los miembros del Consejo Rector, en el plazo de 60 días desde su adopción.

TRES. Están legitimados para el ejercicio de las acciones de impugnación de acuerdos anulables:

- a) los socios que representen el 10% de los votos sociales en el plazo previsto en el apartado Dos a),
- b) los miembros del Consejo Rector, en el plazo del apartado Dos b).

CUATRO. La impugnación producirá los efectos previstos y se tramitará con arreglo a lo establecido para la impugnación de los acuerdos de la Asamblea General en el artículo 30 - Cuatro.

**37. ARTIKULUA. ZUZENDARIA IZENDATZEA
ETA KARGUTIK KENTZEA.
ZUZENDARIAREN BETEBEHARRAK ETA
ERANTZUKIZUNAK**

BAT. Kontseilu Errektoreak zuzendari bat izenda dezake, aurrez bazkideen ordezkaritza-organoei galdetu ondoren, kooperatibaren jarduera profesionalki kudeatzeko. Zuzendariaren eginkizuna pertsona batek bakarrik bete dezake, edo hura beste kide batekin batera aritu daiteke lanean; beste horrek zuzendariak emandako ahalmenak eta botereak izango ditu, eta hark etengabe eta zuzenean gainbegiratuko du bestearen lana.

BI.- Zuzendariak bere karguari atxikitako betebeharrak izango ditu, eta Kontseilu Errektoreak ezarritako jarduera-arau orokorretatik eratorritakoak. Hiru hilean behin, gutxienez, kooperatibaren irakaskuntza-, gizarte- eta ekonomia-egoerari buruzko txostena aurkeztuko dio Kontseiluari.

HIRU.- Gizarte ekitaldia itxi eta ondorengo hiru hilabeteetan zuzendariak Kontseilu Errektoreari erakundearen kudeaketari buruzko txostena eta urteko kontuak aurkeztuko dizkio, ondoren Batzar Nagusian azter daitezten.

Epe berean agiri horien kopiak helaraziko dizkio Zaintza Batzordeari, 37. artikuluko laugarren atalean aurreikusitako ondorioetarako.

LAU.- Zuzendariak lehendakariari berehala jakinaraziko dio haren iritzian Kontseilu Errektorearen esku-hartzea eskatzen duen oro, edo duen garrantziagatik, hark jakin beharrekoa den oro.

**ARTICULO 37. EL DIRECTOR/A.
NOMBRAMIENTO Y CESE. DEBERES Y
RESPONSABILIDADES DEL DIRECTOR/A**

UNO. El Consejo Rector podrá nombrar un Director/a, previa consulta a los órganos de representación de socios, para la gestión profesionalizada de la actividad de la Cooperativa. La función de director/a podrá desempeñarse de forma: unipersonal o colegiada, cuya competencia se extenderá a las facultades y poderes que aquél le confiera y bajo su control permanente y directo.

DOS.- El director/a tendrá los deberes inherentes a su cargo y los que dimanen de las directrices generales de actuación establecidas por el Consejo Rector. Trimestralmente, al menos, presentará al Consejo un informe sobre la situación docente, social y económica de la Cooperativa.

TRES.- Dentro de los tres meses inmediatamente siguientes al cierre del ejercicio social, el director/a presentará al Consejo Rector, para su posterior consideración por la Asamblea General, un informe explicativo de la Gestión de la Entidad y las cuentas anuales.

En el mismo plazo se remitirá copia de dichos documentos a la Comisión de Vigilancia, a los efectos previstos en el artículo 37 cuatro.

CUATRO.- El director/a deberá comunicar al Presidente, sin demora, todo asunto que, a su juicio, requiera del Consejo Rector o que, por su importancia, deba ser conocido por aquél.

BOST.- Zuzendariren eskumenak beti Kontseilu Errektoreak eskuordetuko ditu; Kontseiluak zuzenean eta etengabe gainbegiratuko du haren lana, eta gizarte organo horrek onartutako kudeaketa-helburuak betetzeko eskatuko dio. Zuzendariak, besteak beste, ahalmen hauek izango ditu:

- a) Kooperatibaren ohiko norabide eta trafikoaren arloko gaien gainekoak.
- b) Urteko Kudeaketa Planaren eta Kooperatibaren Plan Estrategikoaren lanketa zuzentzea eta planak Kontseilu Errektoreari aurkeztea; halaber, plan horiek gauzatzeko ekintzak erabaki eta garatzea.
- c) Kooperatibako langileriaren, inbertsioen eta finantzen arloko politikak lantzea eta proposatzea; eta politika horiek gauzatzeko beharrezko erabakiak hartzea eta neurriak ezartzea.
- d) Kontseilu Errektoreari proposatzea kooperatibako zuzendaritza-kideen izendapena eta haien kargugabetzea, eta helburu soziala betetzeko beharrezkoak diren gainerako buru eta exekutiboak izendatzea.
- e) Langileak kontratatzea –bazkideak nahiz soldatapekoak–, eta horiei dagozkien kontratuak sinatzea, ezarritako politikekin bat.
- f) Kontseilu Errektoreak emandako arauak garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein.

CINCO.- Las competencias del director/a serán siempre delegadas por el Consejo Rector, quien ejercerá su control permanente y directo, exigiéndole el cumplimiento de los objetivos de gestión aprobados por el citado órgano social. El director/a tendrá entre otras las siguientes facultades:

- a) Los asuntos pertenecientes al giro y tráfico normal de la cooperativa.
- b) Dirigir la elaboración y proponer al Consejo Rector el Plan de Gestión anual y el Plan Estratégico de la Cooperativa; decidir y desarrollar las acciones conducentes a su ejecución.
- c) Elaborar y proponer las políticas de personal, inversora, financiera, etc. de la cooperativa, adoptar las decisiones y establecer las medidas necesarias para su efectiva ejecución.
- d) Proponer al Consejo Rector el nombramiento y cese de los directivos de la cooperativa y nombrar al resto de mandos o ejecutivos necesarios para el cumplimiento del objeto social.
- e) Contratar al personal, socio o asalariado, firmando los correspondientes contratos, dentro de las políticas establecidas.
- f) Cualquiera otra necesaria para el desarrollo y ejecución de las directrices emanadas del Consejo Rector

SEI. Zuzendariaren izendapena eta eginkizunak arau hauen arabera zehaztuko dira:

- a) Kontseilu Errektorea izango da, halaber, zuzendaria izendatzeko eta kargugabetzeko eskumena duen organoa. Izendapena eta kargu-uztea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira; emandako ahalmenen ahalorde-eskrituraz gain.
- b) Zuzendariari aplikagarri izango zaizkio Kontseilu Errektorearentzat aurreikusitako erantzukizun-arauak; nahiz eta erantzukizun-egintza aipatutako gizarte organoak ere abiaraz dezakeen, gutxienez, kideen bi herenek hala erabaki ondoren, eta Batzar Nagusiaren gizarte akordioak aurkaratzeko ezarritako epe berean.
- c) Ezin dute zuzendari izan ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 42. Artikuluan aurreikusitako debeku edo bateraezintasunak dauzkatenek, ezta Kooperatibaren gizarte organoren bateko kide direnek ere.

38. ARTIKULUA. ZAINZA BATZORDEA. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

BAT.- Zaintza Batzordea hiru kide titularrek eta hiru ordezkok osatuko dute. Estatutu hauen arabera, bateraezintasunik ez duten edo eskubideak etenda ez dituzten bazkideen artean hautatuko dira batzordeko kideak Batzar Nagusian, isilpeko bozketaren bitartez. Hiru urtetarako hautatuko dira, eta epe hori bukatutakoan, berriz ere hautatu ahal izango dira.

Estatutu hauetan eta legerian administratzaileentzat ezarritako erantzukizun-, ezintasun-, debeku-, ordainketa- eta inskripzio-arauen mende egongo dira. Kargua hiru urterako izango da, eta berriz hautatzekotan, kide guztiak hautatuko dira.

SEIS. El nombramiento y funciones del Director/a estarán supeditadas a las siguientes normas:

- a) El Consejo Rector será, asimismo, el órgano competente para el nombramiento y destitución de la persona que desempeñe el cargo de Director/a. El nombramiento y cese se inscribirán en el Registro de Cooperativas además de su escritura de apoderamiento de facultades otorgadas.
- b) Serán aplicables al Director/a las normas de responsabilidad previstas para el Consejo Rector, si bien la acción de responsabilidad podrá ser, además, ejercitada por el citado órgano social, previo acuerdo de los dos tercios de sus miembros como mínimo, y dentro del mismo plazo establecido para la impugnación de los acuerdos sociales de la Asamblea General.
- c) No podrá ser Director/a las personas en quienes concurren las prohibiciones e incompatibilidades previstas en el Art. 42 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, ni aquellas personas que formasen parte de algún órgano social de la Cooperativa.

ARTICULO 38. COMISION DE VIGILANCIA. COMPETENCIAS Y FUNCIONAMIENTO

UNO.- La Comisión de Vigilancia se compondrá tres miembros titulares y tres suplentes, que serán elegidos, de entre los socios no incurso en incompatibilidades o suspensión de derechos según estos Estatutos, en votación secreta por la Asamblea General, por un período de tres años, pudiendo ser reelegidos.

Quedan sometidos a las normas de responsabilidad, incapacidad, prohibición, remuneración e inscripción establecidos en estos Estatutos y por Ley para los administradores. El cargo será para tres años y la reelección será total.

HIRU.- Batzar Nagusiak Zaintza Batzordeko kideak kanporatu ditzake, beti isilpeko bozketaren bitartez, eta baliozko botoen gehiengoz.

Ordezkoen hautaketa titularren hautaketa egiten den moduan egingo da.

LAU.- Administratzaileek Zaintza Batzordeari kooperatibaren jardueren eta aurreikus zitekeen eboluzioaren berri emango dio, gutxienez, hiru hilean behin.

BOST.- Zaintza Batzordeak eginkizun hauetarako ahalmena du:

- a) Urteko kontuak berrikustea eta nahitaezko txostena egitea horiei buruz eta soberakinen banaketa edo galeren egozpenei buruz, Batzar Nagusian aurkeztu aurretik, kooperatibak bere finantza-egoera kontu-ikuskaritza baten menpe jarri behar ez badu.
- b) Kooperatibaren liburuak berrikustea.
- c) Batzar Nagusia deitzea, kooperatibaren intereserako beharrezkoa iruditzen zaionean eta Kontseilu Errektoreak bazkideek eskatuta ezarritako epean deialdia egiten ez duenean, Euskadiko Kooperatiben Legearen 33. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoarekin bat
- d) Ordezkaritza emateko idatzien egokitasuna gainbegiratzea eta kalifikatzea eta, oro har, Batzarretan parte hartzeko eskubideari buruz sor daitezkeen zalantzak edo gorabeherak konpontzea.
- e) Gizarte akordioak aurkaratzea, Euskadiko Kooperatiben Legean aurreikusten diren kasuetan.
- f) Batzar Nagusiari hark aurkeztutako egoera edo gaien berri ematea.

TRES.- Los miembros de la Comisión de Vigilancia podrán ser revocados por la Asamblea General, siempre mediante votación secreta, por el mayor número de votos validamente emitidos.

La elección de los suplentes se efectuará de forma similar a la de los miembros titulares.

CUATRO.- Los administradores deben informar a la Comisión de Vigilancia, al menos, una vez al trimestre, de las actividades y evolución previsible de la cooperativa.

CINCO.- La Comisión de Vigilancia está facultada para realizar las siguientes funciones:

- a) Revisar las cuentas anuales y emitir un informe preceptivo sobre las mismas y sobre la propuesta de distribución de excedentes o de imputación de pérdidas antes de que sean presentadas a la Asamblea General, salvo que la cooperativa viniese obligada a someter sus estados financieros a una auditoria de cuentas.
- b) Revisar los libros de la cooperativa.
- c) Convocar Asamblea General cuando lo estime necesario en interés de la Cooperativa y el Consejo Rector hubiese desatendido, en los plazos establecidos, la petición previamente dirigida al mismo por los/las socios/as a tenor de lo dispuesto en los números 2 y 3 del artículo 33 de la Ley de Cooperativas de Euskadi.
- d) Supervisar y calificar la idoneidad de los escritos de representación y, en general, resolver las dudas o incidencia sobre el derecho de acceso a las Asambleas.
- e) Impugnar los acuerdos sociales en los casos previstos en la Ley de Cooperativas de Euskadi.
- f) Informar a la Asamblea General sobre aquellas situaciones o cuestiones concretas que la misma le hubiese sometido.

- g) Batzar Nagusiak gainerako organoetarako kideak hautatzeko eta izendatzeko egin behar duen prozesua zaintzea.
- h) 32. sei artikuluan jasotzen diren ezintasun-edo debeku-egoeraren batean dauden kontseilarien eginbeharrak etetea eta, hala badagokio, beharrezko neurriak hartzea, Batzar Nagusia egin arte.
- i) Euskadiko Kooperatiben Legeak berariaz agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

Zaintza Batzordeak eskubidea du haren lanerako beharrezko egiaztapenak egiteko; lan hori egiteko batzordeko kide bati edo batzuei eska diezaieke, edo adituen laguntza eska dezake, beharrezkoa iritzi gero.

SEI.- Zaintza Batzordeak laugarren paragrafoan adierazitako eta legeak ezarritako eginkizunak beteko ditu, baina inolaz ere ezingo du zuzenean parte hartu kooperatibaren kudeaketan, ezta hirugarrenen aurrean kooperatiba ordezkatu ere. Hala ere, administrazio-organoren edo horren edozein kideren aurrean ordezkatu du kooperatiba, organoa auzitara eraman behar bada, edo organoren kideekiko hitzarmenak bukatu egin badira.

ZAZPI.- Zaintza Batzordeak bere kideen artean lehendakaria eta idazkaria izendatuko ditu, isilpeko bozketaren bitartez.

Akordioak beti kideen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatzen denean lehendakariaren botoak ez du erabakiko; halakoetan Zaintza Batzordeak beste bilera bat egin beharko du, eta berriz ere berdinketa gertatuko balitz, dimisioa aurkeztu beharko lukete kideek kooperatiban egiten den lehenengo Batzar Nagusian.

- g) Vigilar el proceso de elección y designación, por la Asamblea General de los miembros de los restantes órganos.
- h) Suspender a los Consejeros que incurran en alguna de las causas de incapacidad o prohibición del artículo 32-Seis y adoptar, en su caso, las medidas imprescindibles hasta la celebración de la Asamblea General.
- i) Las demás funciones que le encomiende expresamente la Ley de Cooperativas de Euskadi.

La Comisión de Vigilancia tiene derecho a realizar las comprobaciones necesarias para el cumplimiento de su misión y puede confiar esta tarea a uno o varios de sus miembros o solicitar la asistencia de expertos, si se considera necesario.

SEIS.- La Comisión de Vigilancia ejercerá las funciones señaladas en el párrafo cuatro y los establecidos por Ley, pero en ningún caso podrá intervenir directamente en la gestión ni representación de la cooperativa frente a terceros; sin embargo la representará ante el propio órgano de administración o cualquiera de sus miembros, en caso de impugnaciones judiciales contra dicho órgano o de conclusión de contratos con sus miembros.

SIETE.- La Comisión de Vigilancia, designará de entre sus miembros al Presidente y al Secretario, mediante votación secreta.

Los acuerdos se adoptarán siempre por la mayoría de los votos de sus miembros y en caso de empate el voto del Presidente no dirimirá los empates, en cuyo supuesto deberá celebrarse otra sesión de la Comisión de Vigilancia y si se repitiese la situación de empate deberán presentar su dimisión ante la primera Asamblea General que se celebre en la Cooperativa.

Kide anitzeko organoa izanik, eta organoko kideetako bakoitzak dituen ahalmenak gorabehera, gutxienez hiru hilean behin bilduko da, hau da, urtean lau bilera behintzat egingo ditu, eta balio osoz eratuta egongo da bilerara gutxienez hiru kide bertaratzen badira. Botoa ezin da ordezkatu.

Halere, Kontseilu Errektoreko edo Batzordeko edozein kidek eska diezaioke organo honetako lehendakariari organo hori biltzeko deia egin dezala, eskaera egiteko dituen arrazoiak azaltzen baditu. Eskaera hori Kontseilu Errektoreko edo Batzordeko kideen herenak egingo badu gutxienez, eta batzordea hilabeteko epean deituko ez balitz, eskaera egin duen edozein taldek egin ahal izango luke deia.

ZORTZI.- Kitapen-aldian atal honetan zehaztu zaizkion eginkizunen artetik garai horretan bidezkoak direnak bakarrik beteko ditu Zaintza Batzordeak.

39. ARTIKULUA. IRIZPIDE OROKORRAK

BAT.- Araubide ekonomikoa arautzeko garaian, kooperatibaren ondarearen egonkortasuna ziurtatzeko beharrezko mekanismoak ezarriko dira, bazkideen eta kooperatibaren interesen alde, eta kooperatibarekin harremana duten hirugarrenen alde.

BI.- Bazkideek jaso beharreko kapitalaren eta lanaren ordainsariak, eta eurei emandako zerbitzuen prezioa zuhurtzia eta zorrotasun handiz zehaztuko dira, kooperatibaren egoera eta ondarearen bilakaera eta etorkizuneko beharrak kontuan hartuta.

Como órgano colegiado, y sin perjuicio de las facultades de cada uno de sus miembros, se reunirá mínimamente cada tres meses, es decir deben celebrar al menos cuatro reuniones cada año y estará válidamente constituido cuando concurren a la sesión al menos tres de sus miembros. No será válida la delegación de voto.

No obstante, cualquier miembro del Consejo Rector o miembro de la propia Comisión puede solicitar por escrito al presidente de este órgano la convocatoria del mismo, indicando los motivos de la petición. Cuando esta solicitud proceda de un tercio al menos de los miembros del Consejo Rector o de la propia Comisión y ésta no fuese convocada en el plazo de un mes, cualquiera de los grupos solicitantes podrá efectuar la convocatoria.

OCHO.- Durante el período de liquidación la Comisión de Vigilancia sólo ejercerá aquellas funciones de las señaladas en este artículo que resulten procedentes en dicho período.

ARTICULO 39. CRITERIOS GENERALES

UNO.- En la regulación del régimen económico, se establecerán los mecanismos necesarios para garantizar la estabilidad patrimonial de la cooperativa, en interés de los propios socios y de la cooperativa y en garantía de los terceros que se relacionan con la misma.

DOS.- Las retribuciones de capital y trabajo a percibir por los socios, así como el precio de los servicios ofrecidos a los mismos se determinarán con la máxima prudencia y rigor, teniendo en cuenta la situación y evolución patrimonial y las necesidades de futuro de la Cooperativa.

HIRU.- Kooperatiba iraunarazteko helburuarekin, gizarte zerbitzuak eta jarduerak estaltzeko, Batzar Nagusiak estatutu hauetako 6. artikuluko lehenengo atalean jasotzen diren bazkideentzako aldizkako kuotak zehaztu ahal izango ditu.

40. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNAK

BAT.- Kooperatibaren gizarte eragiketetan bazkideek duten erantzukizun ekonomikoa mugatua da; gizarte kapitalari egindako ekarpenetara mugatzen da.

BI.- Baja ematen duen bazkideak, ordaindu beharreko ekarpenen zenbatekoa ezarri ondoren, ez du erantzukizunik izango kooperatibak baja eman aurretik egindako zorreatatik.

41. ARTIKULUA. GIZARTE KAPITALA

BAT.- Kooperatibaren kapital soziala osatuko dute, Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legeko 57.1.b) artikuluan jasotzen diren nahitaezko ondare-ekarpenek, eta lege horren arabera, kapital sozialtzat hartzen diren gainerako ekarpenek.

BI.- Kooperatibaren gutxieneko gizarte kapitala 6.010,12 eurotan ezartzen da; kopuru hori erabat harpidetua eta ordaindua dago.

HIRU.- Gizarte kapitalari egiten zaizkion ekarpenak agiri izendunen bitartez egiaztatuko dira.

LAU.- Ekarpenak dirutan egingo dira; baina ondasun eta eskubideen bitartez ere egin ahal izango dira, eta halakoetan Kontseilu Errektoreak erabakiko du horien balioa, horretarako izendatutako aditu bati txostena eskatu ondoren.

TRES.- Con la finalidad de atender al mantenimiento de la Cooperativa, para cubrir así, los servicios y actividades sociales, la Asamblea General podrá fijar cuotas periódicas para los socios usuarios

ARTICULO 40. RESPONSABILIDADES

UNO.- La responsabilidad económica de los socios en las operaciones sociales de la cooperativa se limita al importe de las aportaciones a capital social que hubieran suscrito.

DOS.- El socio que cause baja, una vez fijado el importe de las aportaciones a reembolsar no tendrá responsabilidad alguna por las deudas que hubiese contraído la cooperativa con anterioridad a su baja.

ARTICULO 41. EL CAPITAL SOCIAL.

UNO.- El capital social de la Cooperativa está constituido por las aportaciones patrimoniales obligatorias del artículo 57.1.b) de la Ley 4/1993 de Cooperativas de Euskadi, así como por el resto de aportaciones que tengan la consideración de capital Social de acuerdo con la citada ley.

DOS.- El capital social mínimo de la Cooperativa se fija en 6.010,12 euros totalmente suscrito y desembolsado.

TRES.- Las aportaciones al capital social se acreditarán mediante cartillas de participación nominativas.

CUATRO.- Las aportaciones se realizarán en dinero, aunque también se podrán efectuar en bienes y derechos, en cuyo caso el Consejo Rector determinará su valor previo informe de un experto independiente designado al efecto.

BOST.- Ezein bazkidek, bazkide laguntzaileek izan ezik, ezingo du gizarte kapitalaren heren batetik gorako ekarpenik izan.

42. ARTIKULUA. GIZARTE KAPITALARI EGITEN ZAIZKION NAHITAEZKO EKARPENAK

BAT.- Hasieran egiten den nahitaezko ekarpena ezberdina izan daiteke, bazkide-motaren arabera:

- -Bazkide erabiltzaileek HAMABOST EURO
- -Lan-bazkide mugagabeek HAMABOST EURO
- -Iraupen jakineko lan-bazkideek HAMABOST EURO
- -Bazkide laguntzaileek, pertsona fisikoek: HAMABOST EURO
- -Bazkide laguntzaileek, pertsona juridikoek: HAMABOST EURO
- -Bazkide ez aktiboek edo ez erabiltzaileek HAMABOST EURO

Bazkide bakoitzak gizarte kapitalari egin beharreko gutxieneko ekarpena unean-unean indarrean den hasierako nahitaezko ekarpenaren ehuneko berrogeita hamarra izango da, bazkide-mota bakoitzarentzat, artikulua honen laugarren atalean aurreikusitakoaren arabera.

BI.- Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpena bazkidea onartzeko garaian harpidetu beharko da erabat, eta egintza horretan zenbateko horren % 25 gutxienez ordaindu beharko du bazkideak; baldintza hori bete gabe, ezin izango da Bazkideen Akta Liburuan izena eman. Harpidetutako zenbatekoaren gainerakoa kooperatibaren esku jarriko da gehienez ere lau urteren buruan, onarpen-akordioaren egunetik kontatzen hasita, Kontseilu Errektoreak hartutako onarpen-akordioan aurreikusitakoarekin bat

CINCO.- Ningún socio, excepto los socios colaboradores, podrá tener una aportación superior al tercio del capital social.

ARTICULO 42. APORTACIONES OBLIGATORIAS AL CAPITAL SOCIAL

UNO.- La aportación obligatoria inicial puede ser diferente según el tipo de socio/a de que se trate, y su concreción es la siguiente:

- Socios/as usuarios: QUINCE EUROS
- Socios/as de trabajo de carácter indefinido: QUINCE EUROS
- Socios/as de trabajo de duración determinada QUINCE EUROS
- Socios/as colaboradores personas físicas: QUINCE EUROS
- Socios colaboradores personas jurídicas: QUINCE EUROS
- Socios inactivos o no usuarios: QUINCE EUROS

Se establece, como aportación obligatoria mínima al capital social, de cada socio, el cincuenta por ciento de la aportación obligatoria inicial vigente en cada momento, para cada clase de socio, según lo previsto en el apartado Cuatro de este artículo.

DOS.- La aportación obligatoria inicial para adquirir la condición de socio/a deberá suscribirse totalmente en el momento de su admisión y en ese acto desembolsará, al menos, un 25% de dicha cuantía; sin este requisito no se procederá a la inscripción en el Libro de Registro de Socios. El resto de la cantidad suscrita y no desembolsada deberá ponerse a disposición de la Cooperativa en el plazo máximo de cuatro años contados a partir de la fecha de su acuerdo de admisión, de conformidad con lo previsto en el citado acuerdo de admisión adoptado por el Consejo Rector.

HIRU.- Bazkideei kooperatibaren galerak egotzi zaizkielako edo haiek estatutuetan jasotako diruzigorra ordaindu behar dutelako, bazkideren baten edo batzuen gizarte kapitalerako ekarpena estatutuek edo Batzar Nagusiek halakoetarako erabakitako gutxieneko ordaina osatzeko hainbatekoa ez bada, falta den besteko ekarpena egin beharko dute, eta berehala emango zaie ordaintzeko agindua. Ekarpn hori hiru hilabeteko epean ordaindu beharko dute, Kontseilu Errektorearen eskaera jasotzen dutenetik kontatzen hasita.

LAU.- Batzar Nagusiak urtero zehaztuko du bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarpena, eta nahitaezko ekarpen gehiago eskatzea erabaki ahal izango du; hala erabakitzekotan, bazkide-mota bakoitzak zenbateko ekarpena egin behar duen eta ekarpen horiek egiteko epeak eta baldintzak zehaztu beharko ditu. Bazkideren bat ez badago ados kapitala handitzeko nahitaezko ekarpen horrekin, baja eman ahal izango du, eta baja hori justifikatutzat hartuko da.

BOST.- Batzar Nagusiak erabakiko balu bazkideei nahitaezko ekarpen berriak eskatzea, eta kooperatiban bazkideen borondatezko ekarpenik balego, bazkideek nahitaezko ekarpen berriak borondatezkoekin estali ahal izango dituzte, Kontseilu Errektoreari idatziz eskatuz gero. Eskaera hori egiteko hamar eguneko epea izango dute bertaratu diren bazkideek, akordioa hartu zen egunetik kontatzen hasita; bertaratu ez diren bazkideentzat, berriz, akordioaren berri dutenetik kontatuko da epea.

SEI.- Bazkide berriek, hasierako ekarpenarekin batera, kooperatiban sartzeko kuota ordaindu beharko dute.

TRES.- Si por la imputación de pérdidas de la cooperativa a los/las socios/as o por sanción económica prevista estatutariamente la aportación al capital social de alguno/s de ellos/as quedara por debajo del importe mínimo que se señala en el apartado Uno de este artículo de los Estatutos Sociales, el socio/a o socios/as afectados deberán realizar la aportación necesaria hasta alcanzar dicho importe, para lo cual el socio/a o socios/as serán requeridos inmediatamente por el Consejo Rector. Dicha aportación se desembolsará en el plazo de tres meses a contar desde la fecha en que reciba el requerimiento del Consejo Rector.

CUATRO.- La Asamblea General fijará anualmente la cuantía de la aportación obligatoria inicial para los nuevos socios/as y podrá acordar la exigencia de nuevas aportaciones obligatorias, fijando la cuantía, que será diferente para los distintos socios/as, así como los plazos y condiciones en que habrán de desembolsarse. El socio/a disconforme con la ampliación obligatoria de capital podrá darse de baja, que se considerará justificada.

CINCO.- En el supuesto de que la Asamblea General hubiese acordado nuevas aportaciones obligatorias para los/las socios/as, si existiesen en la cooperativa aportaciones voluntarias de los/las socios/as, éstos/as podrán cubrir las nuevas aportaciones obligatorias con aquellas, siempre que lo solicitasen por escrito al Consejo Rector en el plazo de diez días a contar desde la fecha en que se adoptó el acuerdo con respecto a los/las socios/as presentes y con respecto a los/las socios/as ausentes el plazo se computará desde la fecha en que tuviesen conocimiento del acuerdo.

SEIS.- Los nuevos socios deberán desembolsar, juntamente con la aportación inicial, una cuota de ingreso.

Sarrerako kuotak ez dira gizarte kapitalean txertatuko; Nahitaezko Erreserba Funtsera gehituko dira, eta ez dira itzulgarriak izango pertsonalki

Sarrerako kuotak ezin dira izan une horretan bazkide izaera lortzeko gizarte kapitalari gutxienez egin beharreko ekarpenaren ehuneko hogeita bost baino handiagoak.

ZAZPI.- Ekarpen galdagarriak garaiz ordaintzen ez dituen bazkideak kooperatibari interes legala ordaindu beharko dio, eta berankortasun horrek kooperatibari eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio. Bazkideren batek ez badu bere egoera normalizatzen hirurogei egunetan, errekerimendua egiten zaionetik kontatzen hasita:

- ➔ Bazkide horri nahitaezko baja eman dakioket, bazkide izateko egin behar den hasierako nahitaezko ekarpena edo artikulu honen hirugarren eta lehenengo ataletan aipatzen diren ekarpena bada.
- ➔ Edo bazkidea kooperatibatik kanporatua izan daiteke gainerako kasuetan.

ZORTZI.- Urtero Batzar Nagusiak ezarriko ditu bai sarrerako kuotaren zenbatekoa eta bai bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa.

Las cuotas de ingreso no se integrarán en el capital social sino que formarán parte del Fondo de Reserva Obligatorio y no serán reintegrables a título personal.

Las cuotas de ingreso no podrán ser superiores al veinticinco por ciento de la aportación obligatoria mínima al capital social vigente en cada momento para adquirir la condición de socio.

SIETE.- El socio/a que incurra en mora en el desembolso de las aportaciones exigibles, a tenor de lo establecido en los apartados precedentes, deberá abonar a la cooperativa el interés legal y resarcirla de los daños y perjuicios causados por su morosidad. El socio/a que no normalice su situación en el plazo de sesenta días desde que fuera requerido:

- ➔ Podrá ser dado de baja obligatoria si se trata de la aportación obligatoria inicial para ser socio/a o del importe mínimo al que se refiere el apartado Tres en relación con el apartado Uno, ambos del presente artículo, o
- ➔ ser expulsado de la cooperativa en los demás supuestos.

OCHO.- Anualmente, la Asamblea General establecerá el importe tanto de la cuota de ingreso como de la aportación inicial obligatoria para los nuevos socios.

43. ARTIKULUA. BORONDATEZKO EKARPENAK

BAT.- Gizarte kapitalaren egonkortasuna indartu eta baliabideak erakartzeko aukerak handitzearen eta, era berean, bazkideak kooperatibaren etorkizunean parte har dezaten bultzatzearen; Batzar Nagusiak onar lezake bazkideek gizarte kapitalari borondatezko ekarpenak egitea. Halakorik onartuz gero, gutxienez kontzeptu hauen baldintzak ezarriko ditu:

- Ordaintzeko epea
- Interes mota
- Eguneratzea
- Diru-itzultzea
- Eskualdaketa

Horiek nahitazko ekarpenak baino onuragarriagoak izan daitezke.

BI.- Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onar ditzake, betiere ordainsari-mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz gero, 4/1993 Legearen 59.2. eta 57.4. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat.

44. ARTIKULUA. EKARPENAK EGUNERATZEA

BAT.- Kooperatibaren balantzea zuzenbide arrunteko sozietateentzako ezartzen diren zehaztapen eta baldintza berberetan erregularizatuko da.

BI.- Balantzea erregularizatzearen ondorioz sortzen den gainbalioa ekitaldi batean edo gehiagotan erabiliko da, lehenik eta behin, dauden galerak orekatzeko, eta gainerakoa, Batzar Nagusiak erabakiko du zertarako erabiliko den eta zer kopuru erabiliko den, kapitala eguneratzeko, edo banatu ezin diren erreserbak (nahitazkoak nahiz borondatezkoak) gehitzeko.

ARTICULO 43. APORTACIONES VOLUNTARIAS

UNO.- Con el fin de fortalecer la estabilidad del capital social y aumentar las posibilidades de captación de recursos y, al mismo tiempo, potenciar la implicación de los socios en el futuro de la Cooperativa, Asamblea General podrá acordar la admisión de aportaciones voluntarias, de los socios, al capital social, fijando como mínimo las condiciones de los siguientes conceptos:

- Plazo de desembolso
- Tipo de interés
- Actualización
- Reembolso
- Transmisibilidad

que podrán ser más favorables que las de las aportaciones obligatorias.

DOS.- El Consejo Rector podrá aceptar aportaciones voluntarias de los socios respetando los límites retributivos y cuantitativos de conformidad a lo previsto en los artículos 59-2 y 57-4 de la Ley 4/1993.

ARTICULO 44. ACTUALIZACION DE LAS APORTACIONES

UNO.- El balance de la Cooperativa será regularizado en los mismos términos y condiciones que se establezcan para las sociedades de Derecho común.

DOS.- La plusvalía resultante de la regularización del balance se destinará, en uno o más ejercicios, en primer lugar a compensar pérdidas existentes y el resto, por decisión y en las cuantías que acuerde la Asamblea General, bien a la actualización del capital, o bien al incremento de las reservas, tanto sean obligatorias como voluntarias irpartibles.

45. ARTIKULUA. EKARPENEN INTERESAK

Gizarte kapitalari egin beharreko nahitaezko ekarpenek ez dute interesik sortuko, eta borondatezko ekarpenek ez dute inoiz diruaren interes legala gaindituko.

46. ARTIKULUA. EKARPENAK ESKUALDATZEA

BAT.- Kooperatibako ekarpenak eskualdatzeko irizpideek bi helburu nagusi izango dituzte ardatz:

